

Abarrak

JON TORNER


Blanco nocturno. Ricardo Piglia.
Anagrama (2010). 300 orrialde.

ELEBERRI POLIZIAKOETAN, zenbat eta hildako gehiago agertu, autorea orduan eta baldarragoa dela esan zuen Fernando Savater filosofoak pasa den abuztuan Madrilén, Jorge Luis Borges (Buenos Aires, 1899 - Geneva, 1986) idazle argentinarrari eskainitako jardunaldietan. Ez dakigu idatzi gabeko arau hori nobela beltz guztietan betetzen den ala ez, baina egia da Ricardo Pigiaren *Blanco Nocturno* Gizon Jakintsuaren hitzak berresten dituela. Onerako, noski. Piglia (argazkian) ere Buenos Airesen jaio zen -1940an-. Hainbat liburu ditu argitaratuak eta *Blanco nocturno*rekin 2010ean plazaratutako nobela beltz onenaren saria jaso du aurtengo Gijongo (Espainia) Aste Beltzean.

1970eko hamarkada hasieran, Juan Domingo Peronek (1895-1974) Argentinako presidente kargua hirugarrenez hartu aurreko garai gorabeheratsuetan, Tony Durán-ek, Puerto Ricon jaiotako atzerritar galaiak, sexu hirukote gartsua osatu du Ada eta Sofia Belladona ahizpa bikiekin. Buenos Aires probintziako herri bateko familia nagusietako bateko alabak dira, gizon askok desio dituzten perla preziatuak.

Mundua deskubritzen ibili dira eta etxera itzultzean Durán e(ra)karri dute. Zaldi lasterketa polemiko baten ostean, atzerritarra hilik topatuko dute haren hotelean. Antza, diru kontuak daude tartean.

Dirua. Ustelkeria. Apustuak. Sexua. Alkohola. Polizia burugorrrak. Kazike aberatsak. Politikari lapurrak. Desertua. Hautsa. Izerdi usaina. Bakardadea. Mugak. *Blanco nocturno* nobelako osagaiak beste autore amerikar batzuen testuak dakartzate gogora, Txalaparta argitaletxeak *fitxatutako* Paco Ignacio Taibo II eta Eduardo Antonio Parra mexikarren eta Ramon Diez Eterovic txiletarraren narrazioak, esaterako. Alanbre fin baten ganean dantzan dabilzan pertsonaia karismatikoak, elkarrizketa biziak (borroka dialektikoak) eta umorea, istorioaren garrantasuna arintzen (ala nabarmentzen?) duen ironia, aipatu autoreen liburuetan errepikatzen diren osagaiak dira guztiak, eta Ricardo Pigiaren nobela ere ez da salbuespena. Onerako. ■



Atxaspi Hotela

ametsetan bezala.

Bittiria 24
Lesaka (Nafarroa)
T 948 637 536

hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com